



JARDUNALDIA: AHOLKULARITZA ETA SENTSIBILIZAZIOA
ERDI-MAILAKO ARDURADUNEI
LANEKO JAZARPENA, SEXU-JAZARPENA ETA SEXU-
ARRAZOIENGATIKO JAZARPENA

CONFEBASKek eta hiru patronalek (SEA, ADEGI eta CEBEK), OSALANen bitartez, bultzatutako OSASUN KULTURA SUSTATZEN proiektuaren barruan, bi eguneko zikloa aurkezten dizuegu. Proiektu horren helburu nagusia da euskal enpresetan laneko osasun integrala eta ongizatea sustatzea, 2021-2026 aldirako laneko segurtasun eta osasunerako euskal estrategiaren ikuspegiarekin bat etorritz.

Enpresa guztiek, langile kopurua edozein dela ere, prozedura espezifikoak ezarri behar dituzte sexu-askatasunaren eta laneko osotasun moralaren aurkako delituak eta beste jokabide batzuk prebenitzeko, bereziki sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena azpimarratuz, eta jokabide horien biktima izan direnek egin ditzaketen salaketak edo erreklamazioak bideratzeko, bereziki eremu digitalean pairatutakoak barne.

Prozedura horiek ezartzeak, lege-betekizunak betetzeaz gain, abantaila ugari ditu. Alde batetik, jokabide horiek prebenitzeko eta desagerrarazteko enpresak duen konpromisoa erakusten die langileei. Bestetik, onartu behar ez diren jokabideen inguruan langileak sentsibilizatzea, prebentziozko tutoretza sendotuz, eta, aldi berean, enpresan sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren aurka, delitu izan edo ez, gerta daitezkeen jokabideak edo portaerak konpontzeko, desagerrarazteko eta horien aurrean erreakzionatzeko barne-bide konfidentzial eta azkarra bermatuz.

HELBURUAK:

Lortu nahi den helburu nagusia da parte hartzen duen erakunde bakoitzak protokolo bat izatea sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren aurkakoa izan daitekeen edozein portaera prebenitzeko eta horri aurre egiteko beharrezkoak diren neurriak antolatzeko, bereziki laneko jazarpenaren, sexu-jazarpenaren eta/edo sexuan oinarritutako jazarpenaren kasuetan. Horretarako, kanal konfidentzial, azkar eta irisgarri bat ezarriko da, enpresaren barruan salaketak edo erreklamazioak kudeatzeko

- Parte-hartzaileak trebatzea lan-ingurunean arrisku emozionaleko faktoreak identifikatzen.
- Emozioen erregulazioa hobetzen, lidergoa optimizatzen eta lan-giro osasungarria sustatzen lagunduko duten estrategiak erabiltzea.

HIZLARIA:

Ane Gordejuela Enales - Osasun psikologo orokorra

Data	aurrez aurre	Iraupena	ordutegia
2025/10/14	SEA – Araba Kalea, 37 01006 Gasteiz	2 ordu	9.00 tik 11.00 arte

Zure interesekoa izango delakoan, adeitasunez:

Sin.: Aitor Otaola Díaz de Alda
Zuzendari-ondokoa
Vitoria-Gasteiz, 2025ko urriaren 2a

Dirulaguntza emanda / Subvencionado por:



5985 Ebazpena (EHAA, 252 zk. 2024/12/30) / Resolución 5985 (BOPV nº 252, 30/12/2024)